

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

| | |
|-------------------------|---|
| teila | «...ostera teila pilo bat baino gehiago jasotzen baduzu, Soda-k eta biok larrua kenduko dizugu.» |
| barre-argara | «Edalontzi-hotsa, barre-argara zaratatzuak eta astunak, eta nesken barre txikiak, eta Hank Williams.» |
| lotsortasun | «...ezezagunez inguratuta sentitu nintzen laster, dozenaka lagun berbaz eta barrez... eta ni, neure lotsortasun sendaezinean, irribarre zozo bat aurpegian.» |
| adeitsu | «Eta han ikusi nuen gizon irribarre triste adeitsu hura, gabardina, gorra ingelesa eta eskularru beltzak jantzita...» |
| muzin egin | «—Urte askotarako —ihardetsi zidan, nire keinuari muzin egin eta, agur gisa, ezker eskua gorraren hegalerara eramanda.» |
| maskaldu | «Lehen bai, lehen hau, hori eta bestea egiten nituen, baina orain osasuna maskalduta daukat.» |
| diz-diz | «Nire begiradari eutsiz, gorraren hegalpean bi begi diz-diz antzeman zitezkeen...» |
| zinez | «...bai, badakit kontu bat nire lagun baten ezagun bati gertatua, zinez latza.» |
| xuxurlatu | «—Belarriak zabal-zabalik dauzkat... —esan bainoago, xuxurlatu egin zuen.» |
| ez bat eta ez bi | «Eta, ez bat eta ez bi , bide bazterretik irtenda errepideko erreian bertan jartzen da besoa aterata...» |
| alu | «“Zer egin ote du zoro alu horrek? Motxila autoaren aurrealdera jaurti edo zer...?”» |
| artatu | «...gidariak anbulantziara deitu du eta odolustu baino lehen artatu ahal izan dute auto-stoplari ausarta.» |
| sano | «—Istorio bitxia da gero! Ona, sano ona. Ia barregura eta dena ematen du...» |
| puntua jarri | «—Ez daukat asko pentsatu beharrik. Puntua jarri didazu —erantzun zidan lehor samar—.» |
| zamau | «Gonbidatuen artean alboz-albo bidea eginez, barruko mahai zamau zuri luzeetara iritsi eta ardoa txiri-txiri kopa barrura isurtzen nuen bitartean...» |
| parada | «...susmoa nuen kontu bitxi eta izugarri horietako bat entzuteko parada izan behar nuela laster.» |
| ziega | «Egun batean mugimendua sumatzen da ziegetan : zaindaria taldeka dabilta karrajuetatik, sarrail-hotsa nonahi...» |
| erdietsi | «Bi preso horiek, eskuburdinarekin bikiak legez elkarri lotuta, ustegabeko askatasuna erdietsi dute...» |
| estekaturik | «...ezin askatzuko lokarria da eskuburdina: altzairu sendozkoa da eta tinko estekaturik daramate eskumuturretan...» |
| izu-laborri | « Izu-laborria sentitu dute, eta une batez irudikatu dute poliziak berriz atxilotuko lituzkeen uea: tiroak, txakurren haginkadak, kolpeak...» |

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

| | |
|---------------------|---|
| saskel | «Magal batetik estrata batera jaitsi dira eta horren hegalean, borda saskel batekin egin dute topo.» |
| igitai | «Ez dute, baina, eskuburdina arrakastaz ebakitzeko moduko tresnarik aurkitu; bai, ordea, igitai zorrotz-zorrotz bat...» |
| gotortasun | «...igitai zorrotz-zorrotz bat, arma moduan bai, baina eskuburdinak askatzeko besteko gotortasunik inondik ere ez daukana.» |
| jazartzaile | «Handik ordu erdira-edo, egoera larriagotu egin zaie: jazartzaileak ia gainean dituzte...» |
| akituta | «...jazartzaileak ia gainean dituzte eta eurak, berriz, akituta daude, istripuko kolpeek minberatuta, izerditan blai, egarriak itota.» |
| oldarrean | «...baina, atzera begiratu eta han ikusi dituzte poliziak eta txakurrak oldarrean datozela.» |
| sen | « Senak laster egitera bultzatu ditu azken segundua arte.» |
| estolda-bide | «Estalki metaliko handi bat, segurutik estolda-bide bateko sarrera.» |
| mehar | «...igitaiaren kirtenez baliaturik estalkia altxatu eta eskailera mehar batean behera abiatu dira...» |
| ahitu | «Indarrak ahituz doazkie.» |
| luizi | «...zutoin zaharra eraitsiz gero, luizi txiki bat sortu daiteke, jazartzaileei bidea moztu diezaiekeena.» |
| erauntsi | «Zutoinak amore eman du: harri eta hauts erauntsia gainera etorri bazaie ere, bidea itxirik, moztuta gelditu da...!» |
| dirau | «...alabaina, harri mordoaren azpian biak lotzen dituen eskuburdinak tinko dirau ...» |
| aldarri | «...lagunaren aldarriari entzungor eginda, igitaiari gogor eutsita ukaldika ekin dio bere eskumuturra ebakitzeari...» |
| trakeski | «Ihesean jarraitu ahal izan zuenak, trakeski mutilaturik, gorriak pasatu zituen, noski.» |
| urlia | “Zu al zara Urlia Jauna? Pakete hau zuri emateko esan didate.”» |
| akuilatu | «Orduan, susmo makabro batek akuilaturik , arrapataka paketea irekitzeari ekin dio.» |
| ihar | «...eta bere beso iharra ikusi du, zeina lagunak, une haren zain, urteetan disekaturik atxiki duena!» |
| zozo | «Zer? –galdetu nuen, irribarre zozoa aurpegian nuela.» |
| miretsita | «...barreari eman nion neuk ere, miretsita gizonak (...) zelan jakin zuen niri ere hartara ziria sartzen...» |

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

| | |
|---------------------------|---|
| at | «Bere emazte Arantxak ere Bilbotik at zeukan lantokia...» |
| iritzi | «...bizpahiru pisu nahiko egokiak ikusi zituzten; hala ere, zeukaten tamainarako garesti iritzi zieten...» |
| gogobete | «Etxebizitza bila hasi zirenetik hilabetera, baina, herriaren inguruko muino batean kokaturik, gogobete zituen etxe bat erakutsi zieten.» |
| bizitu | «Etxera hiru eta erdiak aldean itzultzen zen; sua bizitzen zuen, bazkari arina jan eta lokuluxka bat egin ohi zuen...» |
| ostera | «Arratsaldeetan, Arantxak lanetik heldu eta atsedean apur bat hartu ostean, elkarrekin osteratxo bat egiten zuten...» |
| iltzez eta giltzez | «...ate-leihoak eta bai pertsiak ere iltzez eta giltzez itxita ageri ziren.» |
| sokil | «...teila asko pitzaturik zeuden eta zirrikitueta haizeak ekarritako lur sokiltxoetan sustraiak eginak zituzten landare ugari...» |
| arra | «...haizeak ekarritako lur sokiltxoetan sustraiak eginak zituzten landare ugari arra bi gora egiten zuten...» |
| txitxildu | «...esan zuen Julenek, begiak txitxilduz , irekita zeuden leihoetan zer edo zer antzeman nahian.» |
| saskelkeria | «Baina zuk ez al dakizu bereizten xarma eta saskelkeria ? Hor bizi dena, inor bizi baldin bada, hauts artean dago...» |
| egurastu | «Gure etxea ere hezea da oso, baina beheko sua piztuz eta eguerdian, edo giro sikua denean, egurastuz gero...» |
| bizkarroi | «— Bai, bizkarroien mendean, hain zuzen. Nik txikitan ez dut jakin zer diren zorriak, kaparrak edota ardiak...» |
| ezkaratz | «Izan ere, ate zaharra irekitzen hasita zegoen eta handik lasterrera silueta luze-luze bat agertu zen ezkaratzeko ilunbean.» |
| jas | «Ez zeukan, ba, porte txarra... bizarra pixka bat eginez gero... jas oneko mutila eta dena...» |
| kitzikagarri | «Zergatik ez dugu jarraitzen paseotxoarekin? Hori bezain kitzikagarriak badira inguru honetako etxe guztiak, ez gara aspertuko arratsaldeetan...» |
| apika | «...zerbait bitxia, agian izugarria ezkututzen zela leiho argidun haien osteko bizitza egunerokoan, baita iragan trumoiatsu bat ere, apika ...» |
| biharamun | « Biharamun goizean, ohi zuen bezala, Julen goizetik jaiki zen, sua piztu eta, Arantxarekin gosaldu ondoren, tipi-tapa oinez abiatu zen lantokirantz.» |
| tipi-tapa | «Biharamun goizean, ohi zuen bezala, Julen goizetik jaiki zen, sua piztu eta, Arantxarekin gosaldu ondoren, tipi-tapa oinez abiatu zen lantokirantz.» |
| hitz beste egin | «... erantzun zuen Julenek, sorbaldak jasoz. Gero, hitz beste egin zuen...» |
| betertzez | «Gizon lodikoteak, tabernariari betertzez begiratuta, eskuaz zeinu bat egin zion...» |

Izen-deiturak: Maila-taldea:
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.
 Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

| | |
|------------------------|---|
| sunda | «Lehenengo ke zuria... eta gero beltz-beltza, sunda itzela ematen zuena.» |
| behargin | « Beharginak onik irten ziren, sasoiz heldu ziren atzealdeko atera...» |
| lotu | «Berrogei langile baino gehiago lan barik lotu ziren... eta pozik, bizirik irten zirenean.» |
| jaramon | «Ez egin jaramon handirik Lukasi. Badakizu, urteekin batzuk arrarotu egiten dira.» |
| gotor | «Handik ordu laurdenera Etxenagusia bistaratu zuen, iluna eta gotorra , mendea joan mendea etorri oihanak inguratu duen gaztelu baten gisa.» |
| langa | «Bertako langa irekitzen ziharduela ezustekoa gertatu zitzaion.» |
| isioturik | «Ikusi dut no-nola bi-biok irten zareten etxetik beheko su-sua isioturik utzita.» |
| beharreztan | «Ez gara umekondoak suarekin beharreztanen bat egiten ibiltzeko.» |
| ahoa bete hagin | «Julen ahoa bete hagin utzi zuen bat-bateko agurrarekin.» |
| lardaskatu | «Eta oihanak inguratutako sarrerarantz lerratu zen, zer edo zer ahopean lardaskatzen zuela...» |
| apatz-apatz | «—Nola joan da eguna, maitea? —galdetu zion Arantxak gizonaren ondoan sutondoko sofan apatz-apatz jesarri zenean.» |
| artegatasun | «...istorioa laburturik edo, hobeto esanda, zentsuratik pasatua kontatu zionean, Arantxak artegatasun pittin batekin esan zion...» |
| gogaitu | «—Julen: auzi honekin apur bat gogaitzen hasita nago, entzun?» |
| zedarritu | «Han ageri zen berriz ere andre xahar baten gerritik gorako silueta, leihoak zedarrituriko argi-itzaletan soslai.» |
| inarrosi | «Aldatu da eguraldia. Berriz ere iparra sentitu beharko dugu leiho zaharrok inarrosten .» |
| txirtxilatua | «...nor izango da [...] eskaileretatik gora igoko den Arbogast detektibea, hura bezala Norman eroaren labankaderek txirtxilatua amaituko duena?» |
| zurtuta | «Aparatu guztiak itzali, diskoa gorde eta, oraindik zurtuta , logelarantz jo zuen.» |
| taxidermista | «...honen izaera izutia, eskizoidea... taxidermista izatea baino ez zaio falta!» |
| amoltsu | «Arantxa oso amoltsu zetorren eta ohera sartzeaz batera, Julen besarkatu eta musukatzen hasi zen.» |
| txirene | «—Ha, ha, ha. Txirene etorri zara lagunartetik, gero!» |

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

| | |
|-----------------------|---|
| fir-fir | «Gau ilun-iluna egiten zuen. Haizeak boladaka jotzen zuen, zuhaitzetako hostoei fir-fir etengabea eraginez.» |
| ezpabere | «Jo zeuk aurretik, bidea dakizun horrek, ezpabere bernazurra apurtu behar dut zer edo zeren kontra.» |
| mailadi | «Aurrean beti Julian zihoala, harrizko mailadi batetik gora egin zuten, harik eta kristaldun ate bat zeharkatuz gela handi batean sartu ziren arte.» |
| hozkirritu | «“Non sartu naiz?”, hozkirritu zen Julen.» |
| intziri | « Intziri moduko bat zen, norbait eskaileran aieneka balego bezala.» |
| aieneka | «Intziri moduko bat zen, norbait eskaileran aieneka balego bezala.» |
| kirrinkots | «Seguru asko egur zaharren kirrinkotsa izango zela pentsatu zuen.» |
| uzkurtu | «...begiek ez zuten hil batenak ematen, zabal-zabalik zituen eta begi-niniak uzkurtuz zihoazen argia gerturatu ahala...» |
| jaulki | «...bat-batean, haginik gabeko zulo hartatik garrasi latza jaulki zen.» |
| ezain | «...andre ximela bere itsusitasun guztiarekin begietsi ahal izan zuen, hark jaurtitzen zuen [...] garrasi latzak aurpegiaren imintzio ezaina areagotuz.» |
| galapan | «Julenek ere, izuz beterik, garrasi egin zuen indar guztiarekin, orain argizaturik zegoen eskaileratik behera galapan jaisten zela.» |
| kirioak aidean | «Bihotzak kolkotik irten behar dit! Kirioak aidean nago!» |
| pattar | «O-oso ondo. Ea zer d-daukadan. Nik ez dut e-edaten, baina pa- pattar batzuk badaude hor gordeta a-auskalo noizdanik...» |
| asaldura | «Kristaleria zaharreko edalontzi ipurdi zabal batean isuri zion edaria artean asaldura kendu barik zegoen gonbidatuari.» |
| hara-honako | «Uda amaierako arratsalde epel hartan Fran Urbieta hara-honako bat egiten zebilen, eguneko lana amaitu ondoren.» |
| ataza | « Atazak bazkalordurako amaituta, otordua Ezpelondon egin zuelarik, une hartan osteria labor bat egiten ziharduen...» |
| aihenbelar | «...etxaurreak era soil baina atseginez apaindurik zeuden: loreak, aihenbelarrak eta laborantzako tresna zaharren bat edo beste.» |
| pertxenta | «Bihurgune samur baten ondoren estratak gora egiten zuen eta handik aurrera jadanik ez zen etxe pertxentarik bide hegaletan ageri...» |
| bide | «...baso aldera edo, behinik behin, hain urbanizatu ez zegoen eremu batera bide zihoan estrata.» |
| diosala egin | «...eskua sonbreirura eraman zuen dotoreziaz, hegala doi-doi ikutuz, eta euskaraz diosala egin zion...» |

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

| | |
|--------------------|---|
| tronpatu | «—Barka, zu... ez, ez. Tronpatu egin naiz, jauna, barka, beste norbait zinelakoan...» |
| marro egin | «—Ez dago arazorik. Lotan ere geldi zaitezke. Aizu, Fran, ez esan ezetzik, ezin didazu marro egin! » |
| gurari | «...laguna ezagutu zuenetik beti dirudun eta gurari guztiak aseztu izan baitzen, berezi-bereziki ondo jatearen eta janztearen ingurukoak.» |
| aratz | «Lanabesak, zakuak, ontziak eta tresna oro ondo antolaturik zeuden, esku aratz baten lana agerian uzten zutela.» |
| goiera | «Ahots irmo, hotz baina eder haren jabea gizaseme bizkarzabal goiera ertaineko bat zen.» |
| bete-beteko | «...sudur kakoak, okots sartuak eta begi txikiak halako euskaldun peto-petoa marrazten zuten, bete-beteko .» |
| aiduru | «—Badakit, Urbieta jauna. Zure aiduru gira. Arnaga jauna barnean duzu, sartzen ahal zara, plazer baduzu.» |
| ilinti | «—Esango al zenidake zertzuk diren botilen barruko labezomorro moduko horiek? — Ilintiak , jauna, ikatz puskak.» |
| ontsa | «— Ontsa da. Segi aitzina, otoi —bukatu zuen solasa Gilenek, ate nagusia erakutsiz.» |
| supazter | «—Ongi etorri supazter goxo honetara, Fran, ongi etorri!» |
| gomuta | «Ordu erditxo bat-edo eman zuten etxea ikusten, erakusten, tarteka iragan denboretako kontuak gomutara ekartzen zituztela.» |
| pieza | «...komuna eta sarrera edo ezkaratz txikitik at, pieza handi batek hartzen zuen azalera ia guztia...» |
| oturuntza | «—Eta kontaktu horiei eusteko zeuen etxean oturuntzak ematen dizkiezu.» |
| erretilu | «...ate ondoan erretilu handi bat eskuan zegoen sukaldariari eskuaz keinu egin zion, jaki-edariak zerbitza zitzan.» |
| gutizia | «Sukaldari-zerbitzariak erretilu bete gutizia zekarren, mokadu txiki-txikietan emanak.» |
| biziki | «— <i>Jurançon</i> hau biziki ona duzue, ahate gibezez betetako barazki mokaduekin ontsa doana...» |
| haboro | «...gorputz haboro du <i>Sauterns</i> honek, halaber laguntza ona egin dezakeena...» |
| adur | «—Irulegiko arno xuri hau berezia duzue: upan sei hilabete eman izanak adur berezia, amini bat azkarragoa erantsi dio...» |
| azkenburuko | «—Badakit zer pentsatzen duzun, laguntxo, baina itxaron, itxaron ezazu afaria azkenburukoraino iritsi arte, eta gero esango didazu!» |
| elezahar | «—Ezagutzen dut hizpidera ekarri duzun elezaharra , noski...» |

Izen-deiturak: Maila-taldea:
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.
 Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

| | |
|------------------------|--|
| ekandu | «—Barkatu mahaiburuan jartzen banaiz, baina nire ohiko lekua da eta, dakizunez, ekanduei oso atxikia nauzu.» |
| oilagor | «...ondoren oilagorra Périgeux erara egina; bukatzeko, erbia saltsa eztiarekin. Den-dena, noski, ardo bikain jaki bakoitzari egokien zetorkionez lagundua.» |
| gorazarre | «...hain koipe gutxi zeukan denak, digestioaren mesedetan eta zapore puruen gorazarrez... » |
| okulu | «Oraindik bazeukan, beraz, okulutxo bat urdailean azkenburukoari bide emateko.» |
| aratinik | «Azkenburukoaren itxura, aurkezpena... ikuste hutsa aratinik jausteko modukoa izan zen...» |
| hits | «—Niretzat asteko egunik... —nola esango nuke?— txiroenak, hitsenak dira. Baina... pasatu egin behar!» |
| zirto | «—Tira, tira, Beñat, ulertu didazu. Horrelako zirtoak harrapatzen iaioa izan zara beti!» |
| atondu | «—Tori pattar pixka bat gehiago. Honekin hartzak legez egingo duzu lo. Gilenek logela atondu dizu goian.» |
| behin-behinekoz | «—Bai —etsi zuen behin-behinekoz Franek, laguna zerbait deseroso sumatuta...» |
| errime | «Gosari errimea bezain gozoa atondua bazeukan ere, ez zuen batere luzatu nahi izan.» |
| prezeski | «Ez diot etxeagatik prezeski .» |
| deitoragarri | «Ba, Ibaietako taberna zulorik deitoragarrienetan , ospe txarreko etxeetan ibiltzen omen da, eta ez nolnahi gainera.» |
| arno | «—Arnoa da, jauna, arnoak burtzoratu egiten du gizasemea, ez delarik bere buruaren jabe eta...» |
| burtzoratu | «Arnoa da, jauna, arnoak burtzoratu egiten du gizasemea, ez delarik bere buruaren jabe eta...» |
| jagon | «—Ordura arte, beraz. Jagon zaitez, laguntxo.» |
| hozkirri | «Aterpean taberna-kafetegi horietako bat zegoen eta, urriko giroa hozkirria bazen ere...» |
| bideak betean | «Gilenen ibilera gero eta baldarragoa zen, bideak betean mugitzen zen karrika estuetan, hemen estropezu, han balantza.» |
| zaratotsean | «Eskaileran behera norbaitzuk zetozen zaratotsean , bultzaka, berba ulergaitzak trakeski oihukatuz.» |
| kalapita | «Euron atzetik, isilik baina beste bien kalapitari adi, erne, bizarduna zetorren.» |
| zirriparra | «Behin kalean egonda, zirriparra eta haserre-giroa gora eta gora joan ziren...» |

Izen-deiturak: Maila-taldea:
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.
 Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

| | |
|----------------------|--|
| upeleko | «Gilenek, deabruzko hazpegiak ageri-agerian, bere arerioari esku batarekin paparretik heldu eta bestearekin upeleko ukabilkada eman zion buruan...» |
| suhartasun | «...eta agerikoa zen bazekiena nola baretu haren suhartasuna ...» |
| lorratz | «Hiriko irteerantz jo zuen taxiak, eskualdeko barnealdera zihoan errepidea hartzeko. Ez zien Franek lorratza galdu.» |
| txabusina | «Barruko argi ilaun batek sortutako itzala bailitzan, Beñaten silueta azaldu zen, etxerako txabusina jantzita.» |
| albate | «Gizon hori sartu baldin bada, zuk diozun moduan eta Gilenekin bazetorren, ba haren laguna izango da eta albatetik irtengo zen...» |
| herabeti | «Aurkezteko eskatu nien eta orduantxe ezagutu nuen gure mutil herabeti , zurrun, hizkera dotoreko, misteriotsu samarra.» |
| karraju | «Egun batean mugimendua sumatzen da ziegetan: zaindaria taldeka dabilta karrajuetatik , sarrail-hotsa nonahi...» |
| atalase | «...gizonak atea zabaldu eta kaleko mutiko bat azaldu da atalasean , paketetxo bat besapean...» |
| baldar | «Gilenen ibilera gero eta baldarragoa zen, bideak betean mugitzen zen karrika estuetan, hemen estropezu, han balantza.» |
| astapotro | «Hil zena beste astapotro bat omen zen, Gilenek besteko errua zuena...» |
| esne bitsetan | «—Hasieran oso ondo joan zen dena. Esne bitsetan bizi ginen.» |
| zipitzik ere | «Egoera edo baldintza normaletan agian Gilenek susma zezakeen nor nintzen, baina gauerditik aurrera zipitzik ere gogoratzeko gai ez da izaten.» |
| noraeezan | «...gomendatzen dizut hemen lotara gelditzea, goian ohea eginda daukazu eta ez dira orduak hortik zehar noraeezan ibiltzeko.» |
| kitzikaturik | «Fran ez tita zegoen. Hain kitzikaturik sentitzen zen Gilenen alderdi iluna bertatik bertara jarraitu ahal izango zuela pentsaturik...» |
| ukaldika | «...lagunaren aldarriari entzungor eginda, igitaiari gogor eutsita ukaldika ekin dio bere eskumuturra ebakitzeari...» |
| aratz | «Eta, ba, lanean aratz eta maratza bazen eta denak pozik bazituen ere, gau-irtenaldietan ospe txarra hedatzen hasi zen...» |
| ostera | «Atazak bazkalordurako amaituta, otordua Ezpelondon egin zuelarik, une hartan ostera labur bat egiten ziharduen...» |
| usu | «Txit ezaguna da inguru honetan, afera asko ditu hemengo jendeekin, bere egoitzatik usu jalgitzen ez bada ere.» |
| maratz | «Eta, ba, lanean aratza eta maratza bazen eta denak pozik bazituen ere, gau-irtenaldietan ospe txarra hedatzen hasi zen...» |
| turrustan | «Alkandoraren mahukaz berehala tornikete bat egin arren, odola turrustan zerion...» |

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

arrapataka«Orduan, susmo makabro batek akuilaturik, **arrapataka** paketea irekitzeari ekin dio.»**erreka-ibi**«Beraz, hiri aldera jo dute, trinkili-trankala, errepide-estratak saihestuta, bidezidorretatik eta inoiz **erreka-ibietatik** ibiliz.»**iaio**«—Tira, tira, Beñat, ulertu didazu. Horrelako zirtoak harrapatzen **iaioa** izan zara beti!»**limurtu**«Pittinka-pittinka jende-zirkuluaren artetik **limurtu** eta mahirik mahai pasatzen hasi nintzen, kanapeak eta bestelako mokadu goxoak dastatuz...»**hazpegiak**«...bekaina erdibitzera zeharkatzen zuen orbain sakona zuen, bestela zorrotzak baina ederrak ziratekeen **hazpegiak** oreka erabat hausten zuena.»**otoi**«—Ontsa da. Segi aitzina, **otoi** —bukatu zuen solasa Gilenek, ate nagusia erakutsiz.»**mokadu**«Pittinka-pittinka jende-zirkuluaren artetik limurtu eta mahirik mahai pasatzen hasi nintzen, kanapeak eta bestelako **mokadu** goxoak dastatuz...»**aldarte**«...zer ote dago Gilenen iraganaren gaiak mintzatzen natzaionean ezkuta ezin ditzakeen **aldarte** aldaketa eta zurztasun horien ostean?»**etxekalte**«—Hara, inudeak etxera dakar mutil **etxekalte**!»**lerratu**«Halako batean erabaki nuen, kopa ondo bete ondoren, erretzea bekatu ez zen bazter lasai batera **lerratzea**, berbotsetik eta astrapatatik urrun.»**berbots**«Halako batean erabaki nuen, kopa ondo bete ondoren, erretzea bekatu ez zen bazter lasai batera lerratzea, **berbotsetik** eta astrapatatik urrun.»**tornikete**«Alkandoraren **mahukaz** berehala tornikete bat egin arren, odola turrustan zerion...»**ardi**«—Bai, bizkarroien mendean, hain zuzen. Nik txikitan ez dut jakin zer diren zorriak, kaparrak edota **ardiak**...»**hartara**«...barreari eman nion neuk ere, miretsita gizonak (...) zelan jakin zuen niri ere **hartara** ziria sartzen...»**gurbitz**«Gurbitz asko egoten zen bertan eta guk egur hori, **gurbitzarena**, tiragomen urkuluak egiteko erabiltzen genuen.»**astrapala**«Halako batean erabaki nuen, kopa ondo bete ondoren, erretzea bekatu ez zen bazter lasai batera lerratzea, berbotsetik eta **astrapatatik** urrun.»**inude**«—Hara, **inudeak** etxera dakar mutil etxekalte!»**entzungor egin**«...lagunaren aldarriari **entzungor eginda**, igitaia gogor eutsita ukaldika ekin dio bere eskumuturra ebakitzeari...»**txiri-txiri**«Gonbidatuen artean alboz-albo bidea eginez, barruko mahai zamau zuri luzeetara iritsi eta ardo **txiri-txiri** kopa barrura isurtzen nuen bitartean...»**mahuka**«Alkandoraren **mahukaz** berehala tornikete bat egin arren, odola turrustan zerion...»